

Autonomiatik autonomiara

TXILLARDEGI



ROVANIEMIN izan nautze joan den astean. Bertako Unibertsitateak antolatutako batzarreko partaidea izan naiz. Mintzagaia: hizkuntz eskubi-deak. London-dik Helsinki-...


ki-za doan hegazkinak, Stockholm-en ingurutik abiatzen da itsasoa barrera eta Ekialderantz. Orduan ugalduta egiten dira uharteak, ehunka, milaka. Halako batez, zehazki noiz esatea ezinezkoa delarik, lurra nagusitzen bide zaio itsasoari, ezari-ezarian, eta «lehorrean» gauden seinalea da. Aland uharteria gairaduta da, beraz; eta Suomi suomitarra hasi. Orain lakuak nagusi, milaka. Aland uharteria («oland» ahoska) Suomiko eskualde «autonomoa» da. 25.000 bizilagun ekak, 80 uhartetan sakabanaturik (beste 6.400 uharte txikiak hutsik daude oraindik, biztanlerik bat ere gabe). Aland-eko Parlamentuak («Landsting» delakoak) 30 deputatu ditu; eta hauek, gaur egun, sei alderditan banaturik daude (txikiena Aland-eko «berdeek» osatzen dute). Sei alderdik, denak beraz, Aland-tarrak dira: ez dago bertan suominar alderdik batere. Boto-ekubidea izateko, bertako hiriragooa lortu behar da aurrenik (baita suomitarra izanik ere). Etxeen eroksetan, bertakoek dute lehentasuna. Aland-tarrak ez dute soldaduzkaririk egiten. Eta uhartetan ez dago inongo indur hartaturik (ezta suomitarririk ere); eta lurralde osoa nuklearrak gabea da. Hizkuntza ofizial bakarra suedziarra da (Stockholm-en bezalaxe). Suomitarek berek ez dute Suomiko eskualde horretan inolako hizkuntz eskubiderik. Hain zuzen ere, egun hauekntan Helsinki zabaltzen duten propagandan (Aland-en diru inbertitzeko) ingelesez ageri da, alemanez ageri da, suedziera ageri da, jakina; baina suomiera ez da agertzen. Suominar etorkinik eta eraginik ez baitute nahi! Iparaldeko Kontseiluak (Baltikoan) Aland-tarrak bi deputatu dituzte, Helsinki-tik pasa gabe. No comment!

EL DIARIO VASCO

Jotako hirukoitza


EAJ eta PSE-PSOEren artean paktu global bat negoziatuzteak, Euskal Herriko eszena politikoan aldaketa sakonak sor ditzake. Formalki, hirukoitzak ez dauka zertan mindu beharrik. Egitarau batean oinarrituta dago eta horri eutsi diezaike legeagintaldiaren azken arte. Baina ezinezkoa da Lakuako sozioen armonia eta hiru alderdien arteko desorekak artifizialki apurtzea. Horregatik, hirukoitzaren egonkortasunak arriskuan ez dagoela dioen aitortpen lasagarriak, adierazten du, beste faktore batzuen artean, hausdura bat izateko beldurra inagin arazoa dela. Inork ez du bere gain hartu nahi historiara krisiaren arduradun gisa pasatzeak dakarren kaltea. Pakto globala aurrera ateratzen bada, hirukoitzari eragingo dio. Agian ez du eztanda egingo, baina bere barruan erlojudun bonbata bald eдукiko du.

ALBERTO SURIO / 1991-VI-10



Setien-n 'Minizuzenketa'

Jarrera pastoral honetatik



ZULET / EL CORREO ESPAÑOL / 91-VI-10

gehien amorrutzen nauena da, Setien bezalako pertsonek ez uztea sekula pulpitoa hilkor arruntarekin hitzegiteko. Gotzai-egoitzatik jaurtizten ditu hitzaldiak, baina ez dira sekula debate baten disziplinara ezartzen. Haren dialektikak gotzai itxura du beti, deklarazioak informalak izanda ere. Eta elizbarrutiari gidatzeko, zehatzasuna, seriotasuna eta konpromezua exigitu behar litzaioke egiten dituen deklarazioetan. Esate baterako, seriotasiaz gertatutako heriotz guztiak dira izugarriak dudarik gabe, batez ere itzulezinak direlako. Baina zentzu pixkat duen inork ez du esango berdin sentitzen duenik Goardia Zibilari aurre

egin dioten terroristen heriotza, eta hauek hil dituzten ume babesgabeena.

CARLOS CARNICERO / 1991-VI-10

EL PAIS Desfilea

Harritzen nauena da, New York-eko eta Whashingtoneko garaien desfileetan, Irakeko herriaren hilketan (eta ez Saddam Hussein-ean, ez honen brain trustarenean, parte hartu zuten armada guztiak edukitzea bere ordezkaria, eta aldis, antolatzaileek ez gordezeta leku bat Hitlerren reenkar-...

zioaren kontrako gerra handian izandako armada propagandistiko-koei. Politikoek, kasu honetan, amor eman behar izan dute eta militarrei protagonismoa utzi, nahiz eta gizontzar izugarri hori, zein bere izenaz gogoratu nahi ez dudana, urrutiratu Gary Cooper, Cary Grant edo Errol Flynn-engan-dik. Baina intelektualekin kupidagabe izan dira. Hilara pare bat ere ez. 'Amerika, Amerika' kantatuz desfila dezaten. Ezta bakarra ere Nazioarteko ordena Berriaz disertatuz, bakarrik hitzegingog balu bezala joateko. Ezer ez. Inor ez.

M. VAZQUEZ MONTALBAN / 1991-VI-10

Araba eta euskara. Letra eta musika

EUSEBIO OSA



ARABA euskaraz. Oraingo deia eta nahia, besterik ez. Oraingo Gasteizko Armentiaok inguru eder bat, ibilbide dotore batzuk, eskualza-...

leen eta euskaleskola zaleen bilgune bat, Igande bat. Araba eraldatunduta honetan baliagarri gerta daitekeen zerbait, agian, Diru kontuak gehiagor ez aipatzea nahigo, ni neuk. Sosak ez datoz gaizki, baina guri kenduak administratzen dituenari eskatu behar zaizkio, kaleko eskaera gehiagor gabe. Nik alderdi estetiko-kulturala gehiago azpimarratuko nuke, alegia, euskaltzaleak bilitezarena, elkarrekin ibiltzearena, probintzi mugak haustzearena, Euskara Herri sentitzearena, UAKoeri aurre egitearena. Halere, jai horretan bertan ere erdaraz gehiago entzungo duzu euskaraz baino, ikastola inguruetan bezalaxe. Horrek amorraraziko zaitu, zure gogoia epelduko du. Halere, merezi du. Baina kezka bat behar dut azaldu. Euskara aurrera doazigula Araban. Estatistikak leku-ko. Alabaina, edozein hizkuntzak, letra eta musika ditu. Euskal letra hainbeste ere badabilen dabil gureku. Sarri hankazgora antean, baina ibili dabil. Musika da gehien hizketen duena. Euskal letra erdal musikan sartzen ari gaitela uste dut. Pentagramaz aldatzea haztu egin zaigu. Eta ez Araban bakarrik, noski! Bai, egia da lehen ere musika asko genuituela, euskalki bakoitzean hainbat soinu ezberdin. Baina denak euskal musika, halere. Oraingo honetara, ordea, ez du euskararekin zerikusirik! Euskal perpausaren gailurrak eta sakonak, gorako eta beheko melodi-hegiak piktsakari bat zaintzerik ez ote dago. Harmoniaren aldeko apustua egin behar dugula! Belarri-komina gutxitzeko bada ere!

ZUZENDARIARI

Getariako sarraskiak

Bost gizardi igaro dira Elkanok munduari, hiru urtean, bira eman zionetik; denbora bera behar izan dute Getaria harri nahiz porlanez inguratzeko Eusko Jaurlaritzaz eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Udalaren onspenarekin.

Orain arte egindako molla-parkinak etekin nahikoa eman ez dutela eta, industrializazioa eta garraioa garatzea hartu dute helburutzat.

Industrialde bat nahikoa ez omen da eta, hiru egiterako doaz: bata Harraldia estalitz, bigarrena Errotaldean, azkena berriz Orruan (beraue errodabailu biberore izateko pentsatu izan arren, nork daki baleak ere ez ote dituzten hezik bertan...). Laster, arrainen berezko sorlekuek (Harraldia) desagertaraziz pizsina artifizialeatan hasitakoak jan beharrean aurkituko gara. Agur txanperoa! Agur surfa! Agur garrai bateko olatuak! Getariako gazte eta ez hain gazteek ezin izango bait dugu gehiago gozatu Gaztatapeko uhinekin. Dike be-

rriak itsasoaren aparra ahaztu eraziko digu eta beronen hasereak urrunduta. Hainbeste harri eta porlan dabilen tokian ez ote da geldituko kamiokada bat Uxotegi basserirako bidea txukuntzeko? Dirudienez horrenbeste lanpostu sortuko (?) dituzten egitasmoek izan dute jadanik lehen ondoriora: herriko zenbait agintariek kanpoan aurkitu dituzte lan eta postuak. Eta nik noiz itzuli ahal-ko dut basamortutik herrira? Getaria «Montekarlo» bihurtu ondoren Alkateak ez du Biarritzera joan behar-ko asteburutuan.

Arzapetik kanpo, labanak txistu pixka batekin zorrotzu nahi dituenak badu orain herrian nahiko petril.

JESUS MARI LASA ALEGRIA GETARIA

Ezkontzarik? Ez eskerrik asko

«Nire aitaren etxea lapur-zo batetan bihurtu duzue». Ebanjelioan, modu honetan mintzatzen da Jesus Eliza manipulatzen edo erabiltzen ari diren pertsonez.

Tankerako zerbait gertatzen da gaur egungo ezkontza askotan, zeren eta, nire iritziaz, pareja-bikote asko dago elizaz ezkontzen dena, baina ez kristau sentimendua duelako, elizak suposatzen duen festa eta muntaiatz baliatu nahi duelako baizik (itxura ona sozialki, argazki-lariak, gonbidatuak...)

Bikote horiek, Kristautasuna ez dute ez sinesten ez praktikatzan, eliz-ekontzat gizartearekiko duen itxura onaz baliatu baino ez dira egiten. Horietao asko eta asko ezta berriro sartuko elizara, non eta entzierronen bat tokatzen ez den.

Nire ustez, ekintza horiek Kristau-Elkartearen kaltetan doaz, benetako kristau sentimenduetan bat bizitzan saiatzen diren guztien kaltetan. Nola ulertzen dira «kristau-elkar-te» eta «kristau-praktika» hitzak, horrelako ekintzak iustarakeratzen? Horrexegatik, nik uste, hasi behar dugula apalki eta agindurik gabe hauxe erantzuten: Horrelako ezkontzarik? Ez eskerrik asko.

XABIER HUIZI EGILEGOR HERNANI

PERTSONAIA



Jose Amedo

Gaur hasiko da Jose Amedo ta Dominguezen auzia epaitu asmoz GAL inguruan dagoen kontu nahasia nahiz eta biak gogor zigortu dago garbi ikusia hankamotz eta ilun gelditzen dela gaurko justizia argitu arte hauen atzean gorde den trama guzia.

MIKEL MENDIZABAL

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI
Kontseilari Ordezkariaz: JOXE MIEL ZUMALABA
Gereatea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA
Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI, LUIZEN ETXEZAHARRETA, INAKI URIA
Publizitatea: KORNELIO ROTETA



Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 80090

HELBIDEAK
Egoitza soziala, Pulizitate eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Erredakzio eta Tailandria: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Iritzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78 / 79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baijona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11